

Ikastetxeetako Hizkuntza Normalizaziorako lanerako diskurtso berri baterantz

Aurkibidea

Prozesua	2
Orain arte indarrean izandako diskurtsoaren ideiak	3
Indarra hartzen ari diren ideiak	5
Ondorioak	9



Prozesua

Hasierako nahia

2012ko otsailean HNTen Garapeneko Saioan identifikatu zen talde bezala aurrera begira diskurtsoa lantzearen beharra. Gune horretan identifikatu zen Ulibarritarrak ideia berrien gainean eztabaidatu eta norabide konpartituta landu eta adostea komenigarria zela.

Talde eragilea edo Prestakuntza Taldea

Prozesua diseinatu eta bideratzeko lantaldea izan da. Honakoek osatu dute lantaldea:

- HNT: *Josune Igoa, Xabier Bengoetxea eta Iñaki Biain*
- EGB: *Xabier Lizeaga*
- Elhuyar: *Nicola Foronni eta Amaia Zarrabeitia*

Lantaldeak saio nagusiak antolatzeke azaroan egin zuen 5 orduko saioa eta ondoren martxoan saio nagusien balorazioa egiteko elkartu zen. Lantaldearen zereginak bi izan dira:

- Oinarrizko dokumentua lantzea, ondoren taldeetan eztabaidatu eta osatzeko.
- Saioen planteamendu metodologikoa prestatzea.

Saio nagusiak: EGB lantaldea eta HNT lantaldea

Diskurtso berriaren lanketa egiteko, hasiera batean Ulibarritarrak denak elkarrekin egitea aurreikusi bazen ere, agenda arazoak tarteko, ez zen posible izan eta azkenik bi talde egin dira. Esan beharra dago Prestakuntza Taldeko Xabier Lizeagak, Josune Igoak eta Amaia Zarrabeitiak saio guztietan hartu dutela parte.

EGB Lantaldea, Seguran elkartu zen otsailaren 13an eta 14an. HNT Lantaldea berriz, Lasarten elkartu zen otsailaren 18an eta 21ean. Guztira talde bakoitzak 10 orduko prozesua egin dute.

Saioen planteamendua

1. Dokumentuaren sarrera eta ORAIN ARTEKOAK barneratu, osatu eta aberastea
2. Egun indarrean dauden ideiak barneratzea eta talde adostasuna lortzea
3. Gure lanerako giltzarriak adostea
4. HN lana aberasteko proposamenak jasotzea eta lehenestea
5. Gure lanerako inplikazioa aztertzea eta ikastetxetan zer egingo dugun (konpartitu, eraiki, sozializatu...) aztertzea

Saioetan landutakoa

EGB lantaldean planteatutako 4. punturaino landu dugu eta Barnetegi bakoitza geratu da 5. puntua beraien kabuz lantzeko. Hau da, lanerako inplikazioa aztertzea eta ikastetxeetan zer egin aztertzea Barnetegi bakoitzak berea landuko du. Ondoren, sozializatu eta bateratzeko saioa egitea komenigarria litzateke.

HNT lantaldean 3. punturaino landu dugu eta beraz, 4. eta 5. puntuak geratzen dira lantzeko.

Orain arte indarrean izandako diskurtsoaren ideiak, presupuestoak

Hizkuntz eskubidea.

Gizaki orok du bere hizkuntzan jarduteko eta berau lantzeko eskubidea. Eskubide horiek lege babesa izan behar dute eta eskubide hori egikaritzea ahalbideratu behar diote hiztunari.

HNTen taldean erabili izan da eta barnetegietan baita ere, nahiz eta zalantzaren bat agertu.

Erakundeen betebeharra.

Erakundeen betebeharra da hiztuna babestea eta bere hizkuntzan bizitzeko aukerak eta bitartekoak ematea. Hizkuntza gutxiagotuaren kasuan, askozaz beharrezkoagoa da erakundeen betebehara hori, gutxiagotutako hizkuntza hori berariaz zainduz eta bultzatuz.

Barnetegietan erakunde horietako bat geu garela azaldu da, eta HNTek erabili izan dela diote.

Errespetua euskaldunarekiko

Euskalduna bertakoa izanik, errespetua zor zaio eta horregatik beharrezkoa da denok euskaraz ikastea eta egitea.

Barnetegietan erabili izan da eta erabiltzen da oraindik ere. Normalkuntzako teknikariek baztertuta, edo gutxi erabiltzen dute. Hurrengo puntuarentzat ere balio du honek.

Edukazioa onagatik eta bestearekiko errespetuagatik

Bi diskurtso kontrajarri egon daitezke hemen. Batetik, euskaldunak bertakoak izanik, zor zaien errespetuagatik euskaraz egin beharko litzateke eta horretarako neurriak hartu. Bestetik, denok ez dakigunez euskaraz, ez dakienarekiko errespetua eta edukazio onarengatik besteak dakien, guztiok dakigun, horretara makurtzea da errespetua. Azken hau da gizartean indartsuena agertzen dena.

Hizkuntza propioa, gure hizkuntza, berezko hizkuntza

Euskara da gure herriko hizkuntza, betidanik hemen egon dena, herri honek berezkoa duen hizkuntza bakarra, gurea, propioa, herri bezala ere, izena ematen diona.

HNT maila apal batean erabili izan dute, baina barnetegietan erabilia izan da.

Integrazioarako bide

Gaur egun euskara jakitea Euskal herrian integratzeko bide da. Euskal hiztun komunitatean integratzeko eta gizarte honetan modu egokian txertatzeko, sozialki onartua izateko eta aukera berdinak izateko, ezinbesteko da euskara jakitea.

Barnetegietan zuzenean erabili izan den zalantza agertu da, baina erabili dute. Normalkuntza teknikariak erabili izan duten ideia da hau.

Hizkuntza zaharra, galtzeko arriskua, erabili ezean galdu egingo da.

Munduan den hizkuntza zaharrenetakoa izateaz harro gaude. Sekulako altxorra daukagu eskuartean. Hala ere, mendez mende jaso dugun altxor hori galzorian egon daiteke gaur egun. Ikastea eta erabiltzea ezinbestekoak dira hizkuntza hori indarberritzea nahi badugu. Ardura era erantzukizuna jartzen dira gure gain.

Barnetegietan ikasleekin erabili den ideia da hau. HNTek ideia hau gaintu beharrekia ikusi dute.

Kosmobisioarekin lotura, mundu magikoa, “lege zaharra”

Euskara sarritan mundu ikuspegi jakin batekin lotu izan da. Aspaldiko garaietako ohiturekin, ikusmoldeekin, bizi-giroarekin. Aspaldiko lege eta garaiekin uztartu izan da gehienetan euskara.

Baztertuta daukagu denok, ia-ia erabili ez delako.

Izaera jakin bati lotua: baserriari lotua.

Euskara nekazal munduari estuki lotua irudikatu izan da aspalditik. Ikusi besterik ez dago gure literaturako pasarteak, gure egun berezietako janzkerak eta gure iruditegia.

Ez da erabili, eta gainera baztertu beharrekoa dela ikusten da.

Erabaki politikoa, alde zein kontra.

Hizkuntza indarberritzeko hautua egitea erabaki politikoa da. Plangintza instituzionala, edozein delarik ere, funtsean erabaki politikoa da. “Laissez faire, laissez passer” printzipioa aplikatzea ere, erabaki politikoa da, zeren dagoen egoera mantentzeaz gain, egun dauden erabakiei indar ematen dielako. Ez egitea da.

HNTen artean maila apalago batean erabili izan da. Barnetegietan ez da azaldu ere egin.

Espainiako inposaketaren kontrako posizionamendua.

Euskara ikurra izan da askotan. Eguneroko mintza-jardunerako tresna baino gehiago, espainiako politikaren aurkako beste ezaugarri bat gehiago, errebindikazioa. Zapaldua izanaren kontzientzian oinarri izan duena eta eraldaketa berri baterako aldagai sinbolikoa.

HNTen aldetik gainditu beharreko ideia da hau, eta barnetegietan ez da azaltzen.

Gizarte eta kultura batekin lotutako identitatea

Euskara gizarte jakin batekin ikusi izan da lotua. Hizkuntza kode huts baino areago, etnokultura baten espresioa ere bada. Hizkuntza horretan garatu izan dira hainbat ezaugarri kultural eta sozial. Horiek guztiek identitate jakin bat ematen diote komunitate horretako partaideari.

Barnetegietan azaldu izan da hau, eta HNTen jardunean ere bai.

Kulpabilizazioa: euskara ez da galtzen ez dakitenak ikasten ez dutelako, dakitenek erabiltzen ez dutelako baizik.

Euskaldunarengan jarri da bere hizkuntzaren erantzukizuna. Bere da, hizkuntza hori salbatzearen edo galtzearen arduradun nagusi eta bakarra. Horrek euskal hiztuna gainzamatzeaz gain, erdaldunaren erantzukizuna arindu edota salbuetsi egiten du. Ez ditu kontuan hartzen hizkuntzaren erabilerak eragiten duten aldagaien konplexutasuna.

Denok erabili izan dugu.

Ardura besteengana botatzeko joera: Administrazioa, politikoak, etorkinak,...

Euskararen erabileraren bilakaeran aldagai asko izan dira eragin dutenak. Hala ere, sarri askotan norberaren arduraren zatia hartu ordez, besteengan jarri izan ohi da bilakaera eta norberaren egoeraren ezintasuna: administrazioaren utzikierian, politikoen erabakietan, etorkinen eraginean eta antzeko aldagaietan. Horrek bakoitzari dagokion zatia zuritzea du sarri helburu.

Hau ez da erabili izan, puntualki azaldu bada ere tartean behin.

Hizkuntza ederra, hizkuntza polita, jaso eta gorde beharreko altxorra

Zaharra izatearen ekarpenari, beste hainbat dohain atxiki zaizkio euskarari. Hizkuntza garbia (biraorik gabea), ederra (hitz kuttunez eta esapide jatorrez hornitua), ahoskera polita duena... sekulako altxorra beraz, ondo jaso(bere horretan), higaduretatik zaindu eta kutsadura guztietatik gorde behar dena.

Hizkuntz Normalkuntzako teknikariek erabili izan dute. Barnetegietan ez da gehiegi azaldu ideia hau.

HNTen jardunaldian hauek ere esan dira ideia hauen inguruan:

- *Idea gehienak, inplizituki edo esplizituki, erabili izan ditugu.*
- *Batzuk agian ez daude gudan, baina gizartean, eskolan, haurrengan... daude.*
- *Idea askok oraindik indarrean jarraitzen dute.*

Falta dira:

- *DISFRUTATZEKO, BIZITZEKO HIZKUNTZA. Herri euskaldunetan badago, euskara bizia da.*
- *EUSKARA NORTASUN MARKA. Euskal herritik kanpora goazenean gehiago erabiltzen dugu.*
- *ERREALITATEAREN ZATI BAT GALTZEAREN SENTSAZIOA.*

Indarra hartzen ari diren ideiak

Beltzez oinarrizko txostenetik hartutako pasarteak

Urdinez: saioetako aktetatik jasotakoak.

DISKURTSOA BERRITU, EGUNERATU, OSATU BEHARRAZ

Framing berria, uzkurra eta aldarrikatzailea gainditzeko.

Hainbat ahotsek adierazi dute orain arte nagusiki baliatu dugun diskurtsoak agortua dirudiela eta horretan oinarritutako praktikek goia jo dutela. Adierazle gisa aipatzen dute azken ikerketek erakusten duten erabilera maila trabatuta gelditu izana.

Iñaki Martinez de Lunak, esaterako, esan ohi du azken hamarkadetan euskararen inguruan bi diskurtso edo “framing” nagusi izan direla aldarrikatzailea eta uzkurra eta aurrera egingo badugu “framing” horiek gainditu behar ditugula.

Diotenez, diskurtso berri bat behar dugu, non euskararekiko ikuspegi eta bizipen ezberdinek bat egingo duten, gutxieneko zenbait puntutan behintzat. Batera bilduko dituen jatorrizko euskaldunen, euskara bereganatu dutenen eta hiztun berrien esperientziak, bizipenak, espektatibak eta beharrak

Iruzkinak

- ❑ Egoera aldatu denez, kontsentsua lortzeko diskurtsoa egokitu behar da. Framing aldarrikatzailea eta uzkurra ez dira nahikoa; ez behintzat orain arte bezala bakarrik.
- ❑ Baina honek ez du esan nahi aurrekoa %100 aldatu behar dugula, ezer ezen truke.
- ❑ Honekin lotuta egon daiteke subsidiariedadearen printzipioa: “bertakoan egin daitekeena ez egin beste batean”.
- ❑ Eragile guztien ardura da hizkuntza bat aurrera ateratzea.

DISKURTSOA BERRIRAKO OSAGIAK, 3 (4) ARDATZETAN ANTOLATUTA

1. HIZKUNTZAREN ETA HIZKUNTZ ANIZTASUNAREN BALORAZIOAN ARDAZTUTAKO IDEIAK

Hizkuntz Ekologia eta harekin lotutako ideiak:

Subsidiariedadearen printzipioa: Gizarte erantzukizuna.

Eleaniztasunaren beharra. Hitzunen globalizazioa. Komunikazioaren globalizazioa

“Framing” berri hori eraikitzerakoan Hizkuntzaren Ekologia¹ren ikuspegia interesgarria izan daitekeela diote aditu askok. Horien iritziz, ekologiak baliatu ohi dituen kontzeptuak eta lan-proposamenak eta –tresnak Hizkuntza Normalizatzeko lanetan lagungarri suertatu daitezke. Besteak beste hauek:

¹ 70. hamarkadan erabiltzen hasi zen terminoa (Haugen 1972) eta ikuspegia - Hizkuntzen aniztasuna, biziraupena, berdintasuna. aztertzen eta definitzen ditu. Hizkuntzak zelan galtzen eta berreskuratzen diren azaltzen saiatzen da

- Kontzeptuak:
 - Oreka eta orekaren bila aritzea
 - Arnasguneen beharra
 - Erresilientzia (pertsona edo talde batek zoritxar edo ezbeharrari, trauma edo emozio-minari aurre-egiteko duen gaitasuna)
- Gure esku-hartzea oinarritzeko printzipio baliagarriak:
 - Globalki pentsatu, tokian-tokian ekin
 - Berdintasunaren printzipioa (hizkuntzen eta hiztunen aukera eta eskubideen berdintasuna)
 - Prebentzioa
 - Subsidiaritatearen printzipioa (bertako hizkuntza “lokalean” egin daitekeena ez beste hizkuntza “globalean” egin) eta funtzio eskusiboena (funtzioak esleitu bertako hizkuntzan espezifikoki garatzeko)
 - Erresponsabilitate konpartitua eta berezitua (egokitua)
- Tresnak
 - Kontrol teknikak: inpaktu-azterketak
 - Planifikazio-teknikak
 - Sustapen-teknikak: gizarte-erantzukizunarekin (Definizioa kopiatu, Marko) lotuta

Komunitatearen Hizkuntzarekiko Gizarte Erantzukizuna honela definitu zuen Iñaki Markok:

- “Gizarte edo komunitate jakin bateko kideok, norbanako gisa edota gizatalde bateko partaide giza, elkarren artean eta gizartearekiko dugun betebeharrak edo konpromisoa”
- “Komunitatearen kide garen pertsona eta gizarte-talde ezberdinek, legeek eta arauak agintzen dutenaren haratago, komunitateren ekosistema osoaren garapen jasangarri eta harmonikoarekin dugun Gizarte Erantzukizunaz kontzientzia hartzea, eta bakoitzak, ardura dugun era guztietako ‘gizarte-instituzioetan’ positiboki eragitea”.

Ekologiaren ikuspuntuari jarraikiz:

- Hizkuntzak testuinguru jakinetan kokatzen diren entitateak dira.
- Beren eguneroko existentzia eta garapena ekosisteman parte hartzen duten elementu ezberdinen arteko oreka dinamikoaren menpe dago.
- Euskararen kasuan, bere testuinguruko ekosistema Euskal Herriko espazioan kokatzen den komunitatea da. Ez dauka besterik munduan.

Diskriminazio positiboaren printzipioa: ahula indartu beharra.

“ laissez faire, laissez passer” printzipioak egungo “statu quo”aren ezberdintasunak areagotu besterik ez ditu egiten, indartsua gehiago indartuz eta ahula gehiago ahulduz. Gizarte justuago baten xedeak ahulari babes berezia eman beharra ezinbestekoa egiten du, neurri orekatzaileak hartuz. Halaber, hizkuntza ekologiaren ikuspegiak diskriminazio positiboaren printzipiora garamatza: ahulenak, txikiak, gutxi direnak laguntzera eta babestera.

Parekotasuna

Euskara edozein hizkuntzaren pare dago (hizkuntza guztiek balio bera dute-eta). Egoera guztietan balio du, edozertarako.

Iruzkinak:

- Diskurtsoa berritzeko egokia da Hizkuntza Ekologiarena (globalki pentsatu, tokian tokian ekin)
- Honekin lotuta egon daiteke subsidiariedadearen printzipioa: “bertakoan egin daitekeena ez egin beste batean”.
- Eragile guztien ardura da hizkuntza bat aurrera ateratzea.
- Gizarte Erantzukizuna
- Norbanakoek eta giza taldeek gizartearekiko betebeharrak eta erantzukizunak dituzte. Hizkuntzaren garapena ere gizarte erantzukizuna bada.
- Gutariko bakoitza aurrean dagoenarekiko (bat zein lan zein hizkuntza komunitate oso) erantzukizuna dugu eta horrek boterea ematen digu, ahalmena ematen digu, zerbait egiteko gaitasuna (kulpabilizazioaren kontrakoa)
- Gurean gizarte erantzukizunaren balioa errotuta dago? Agian balio hau sustraituta dagoen gizarte batean izan dezake indarra, baina gurean?
- Ekologiarekin ere lotuta dago: nori dagokio hizkuntzaren erantzukizuna?
- Gogoratu: gure gizartean ia erdiak erdaldunak direla eta espainolak, eta hauek ere erantzukizuna izan beharko luketela euskararekiko.
- Genero berdintasunarekin konparatuta, adibidez, generoarena gaur egun gizartean barneratuta dagoen balio bat da, berdin ekologiarekin. Hizkuntza ere balio bezala ulertzen dut.

Diskriminazio positiboaren printzipioa: ahula indartu beharra

- Zein hizkuntza? Ahula zein zonaldean? Orokorrean euskara hizkuntza ahula denez indartu behar da, baina desorekak kontuan hartu beharko lirateke.
- Laguntzak ematerakoan kalitatearen printzipioa kontuan izan beharko genuke. Liburuak, filmak...
- Begirada kontu bat dago: zergatik egiten dugu? Hizkuntzagatik ala hiztunagatik? kontua ez da “euskara hobetu posizionatu nahi dut”, diskriminatzen duguna pertsona da, ez hizkuntza.
- Umearentzat abantaila handien aumetan ikastea eta egitea da. Aplikazioa beste kontu bat da, baldintza batzuk eragingo dute
- Gizarte edo historian desoreka dagoenean geratzen da. Diskriminazio globala
- Kalitatea izango bada, kantitatea ere egon behar da eta atartearen “txarrak” ere egon beharko dute gero “onak” egoteko.

Subsidiariedadearen printzipioa: zure hizkuntzan egin duzunerako ez erabili beste hizkuntza bat

- interes, egoera, kide, lagunaren arabera hizkuntza erabiliko dugu.
- Orijinalak, hizkuntza jakinez gero, hizkuntza horretan egitea komeni da. Horretarako hizkuntza desberdinak menperatzea komeni da.
- Testuinguruan kokatu: hizkuntza aniztasuna eta hizkuntz ekologiaren barruan kokatu behar da.
- “bertakoarekin moldatzen bazara, ez erabili beste bat” zein da bertakoa?
- Lotu behar da baita diskriminazio positiboarekin “hizkuntza ahulean egin dezakezuna ez egin indartsuan”

- ❑ Hizkuntza informala galtzen joan da eta hor eskolak ez du zertan eragin behar, nire ustez. Edo bai, baldintzak sortu behar dira eta eragin dezake hemen ere.
- ❑ Euskara atraktiboa izan daiteke, niretzako plazer bat izan zen nekiena beste hizkuntza batean esatea. Printzipioari buelta emanda? “egin nahi dugu? Gaztelaniaz badakigu, baina beste hizkuntza baten nahi duzu egitea?”

2. HIZTUNARI ERREPARATU ETA HAREN JOKABIDEAZ ARITZEN DIRENAK

2.1.- *Hizkuntzatik Hiztunera*

“Hizkuntzaren alde” aritzea lehenetsi beharrean, hiztunon behar eta espektatibei (ere) erreparatzea. Eta hiztunok hizkuntza-elkarbizitza egokirako ditugun beharrei

Iruzkinak:

- Erdigunean hizkuntza izatetik hiztuna izatera igaro.
 - Pertsona bere osotasunean hartu
 - Uztea irudikapenak
 - Hizkuntza auto-estimua (linguistikoa, pertsonala), talde-autoestimua
 - Bizipenak, subjektibotasuna
 - Hizkuntza komunikaziorako tresna ez ezik, elkarbizitzarako *tresna*
 - Hizkuntza hiztunaren garapen osorako (intelektual, pertsonal,...) tresna: pentsamendurako
- Eskolako lanean (ere) ikasleen hizkuntza. osotasunean hartu
 - Gogo-bizitasuna konpartitu parekotasunetik
 - Norbere ibilbidean, sentimenduak, esperientziak konpartitu
 - Ikasleen interesetik abiatuta, kultur produktuetara ere
- Galdera: hiztunera edo hiztun-elkartera?
- Hizkuntza eta hiztuna ez ditugu kontrajarrian ipini behar.
- Hizkuntza ekologiarekin lotuta, dibertsitatearen bidetik (aberastasuna globala da)
- Gurea delako ez dugu etorkizunik, dibertsitatearen bidetik (aberastasuna globala da)

Maitasuna, bizipenak, subjektibotasuna, barne sentimenduak

- Alaitasuna, umore ona, goxotasuna, dibertsioa, ondo egotea, ondo pasatzea, elkartasuna, laguntza, poza, emozioak
- Arreta pertsonala. Banakakora iritsi
- Bizi egin behar da egoera
- Bizipen esanguratsuak hizkuntzarekin lotu: erosotasuna, segurtasuna, gozatu, auto-konfiantza linguistikoa...
- Arrazonamendutik sentimenduekin lotu, eta baita fisikoarekin lotu daiteke. “merezi izan du” esateko moduko egoerak ahalik eta gehien izatea da erronka. Ahalegina eskatzen duelako, beraz motibazioa izan behar du ahalegina egiteko.

Eleaniztasunaren beharra. Hitztunen globalizazioa. Komunikazioaren globalizazioa

- Abantaila, beharrezkoa da.
- Abiapuntua: etxeko hizkuntza(k)
- Mundu globalizatu batean bizi gara, hizkuntza guztiak dute garrantzia eta errespetua, gurera datorrena.
- Zer leku dute ikasleek dakarten hizkuntzek? Batez ere gaztelania dutenek?

- ❑ Gune erdaldunetan badakigu zein hizkuntzak duen indarra eta ez da euskara. Berritzegunetan hau ondo koordinatu beharko da. Hego Amerikarrak dauden eskola gehienetan ARAZO bezala tratatzen dira. Udal eta beste erakundeen arteko koordinazioa behar dira.
- ❑ Hasieran izan daiteke nahikoa baina etorkizunean hutsune bat izango dute %100 integrazteko. Beharko dute gizartean aukera berdintasuna izateko.

Orain arte egin duguna ezagutu, norantz begira jarri jakiteko. (Dilts-en piramidea, emoziozko adimena). Pertsonengan eragiteko zer izan behar dugun kontuan argi izan

- ❑ Baloreak eta identitatea.
- ❑ Parte izatea, harro egotea zerbaiten partaide izateagatik.
- ❑ Nola egiten da hori? Intuizio bat badut, baina konplikatua ikusten dut goikoetan eragitea.
- ❑ Nahita edo nahi gabe eragiten ari gara. 2 irakasle pasilloan gartzelaniaz ari badira, goi mailako mezua ematen ari dira ikasleei. Beraz, kontzienteki egitea izango da klabea.
- ❑ Mezu batzuk dira esplizituak eta beste batzuk inplizituak. Mezua ahotsarekin edo praktikarekin egiten ditugunak desberdinak izan daitezke.
- ❑ Eraiki egunerokotasunetik egiten dugu. Ikastetxeetan aukera gutxi izaten dugu hitz egiteko, barnetegietan egiten dute, adibidez. Beraiek euskara nola bizi duten, bizipenak, sentimenduak...umearen goiko ilara guztiak ari gara elikatzen, gure esku dagoena da: gizartean ematen ari direnetik bestelako norabidean elikatu. Bere identitatea osatzeko elementu gehiago eranstea da gure lana, baina osatu berak osatu beharko du.
- ❑ Oso zaila da, beldurra ematen digula uste dut
- ❑ Erronkan bidez egiten dute lan gusturago eta hobeto. Bizipenak, pertzepzioak...
- ❑ Baikortzea izan daiteke eskolaren zeregina, gehienetan beraien irudikapena negatiboa izaten delako.
- ❑ Barnetegietan: bihotza (ez dugu oso kontuan hartzen), burua (badago elkartzeko gune bat), gorputza
- ❑ Nola eraman eskolara? Curriculumean badago hainbat zirrikitu, hizkuntza-plana, tutoretza-plana...
- ❑ Berritzegunetan elkarlanean egin beharko dugu, ala? konpartitzeko argumentuak eraman beharko ditugu. Zelan elkarlana egin? Nola? Kontuz-kontuz tantaka.

2.2.- Hautu pertsonala, Jarraidura-irekiera

* Hautu pertsonala, ez ezik... Talde faktoreen eragina. Norbere nahia. Taldearen nahia

Gure gizartean euskaraz aritzea, erabiltzaile aktiboa izatea (Euskaldun Euskaltzalea² izatea) hautu bat da. Hautu kontzientea. Haizearen kontrako hautua askotan, gainera. Eta, zenbaitetan, nekeza Baina nahimen hori elikatu egin behar da, hautu hori egiteak balio erantsiren bat ere eduki behar du.

Zein izan daiteke euskaldunon kasuan (eta gazteen kasuan bereziki) balio erantsi hori

- Hautua (nekeza izanda ere) erronka eta abagune eder gisa irudikatzea.³ Abentura honetan parte hartzera gonbidatuta egotearen pribilegio gisa
- Iraupenaren katean parte hartzearena. Bada belaunaldi berriek ere abagune hori daukate, iraupenaren katean begi berri bat egitearena: aurrekoengandik jasotakoari jarraidura emanaz eta --aldi berean—irekidura mugimendu berri bat eginez.
- Eta urrats esanguratsu bat lortuz, euskara izatea belaunaldi osoaren hizkuntza komuna: denona eta haien artekoa

Hautu pertsonal hori ez da erabatekoa, ezta gutxiago ere. Batetik, “eskaintzen zaion menuaren aukeren artean” aukeratzen du Hiztunak, beti. Bestetik, kolektibotasunak 8taldeak) baldintzatzen du norbanakoaren hautua. Baina, minorizazio egoeretan hizkuntza gutxiagotua erabiltzeak hautu pertsonal bat eskatzen du, beti. Eta erabileran aurreratu egingo da, hautu pertsonal hori konpartitu egiten bada ohiko jardun-guneetako sare-kideekin; hautu pertsonala talde-hautua bihurtzen bada, alegia.

Iruzkinak:

JARRAITU: tradizioari jarraitu. IREKIERA: mundu berrietara, ideia berrietara zabaldu. Bertsolaritzan gertatu dena adibide hartuta eraikitzen du Sarasuak diskurtsoa. Tradiziotik jakin du bertsolaritzak modernizatzen bai gaiei dagokienez, hartzaileri dagokienez...

Hautu pertsonalaren ideia azpimarratu behar da, hau egiteko elikatu egin behar da. Adib. elikadura izan daiteke abenturarena.

Hautu pertsonalarena erdaldunek ere erabil dezakete. Beraz, bakarrik arriskutsua izan daiteke.

Ikasle gehienek euskararen hautuarekin galtzeko edo aukera murriztua dute, beraz nekez. Taldearen, hiztun kolektiboaren ideiarekin erkatu behar dugu.

“Txikia polita da” atxikimenduan ideia Sarasuak berak ere landuta badauka.

Hautua elikatzea, ari gara euskararen aldeko hautuarekin? Hautu jakin batekin? Ala nahi izatea pertsonak berez hautua egiteko gai izatea. Hautua pertsonala da, eta bere ardura izango da. Elementu askok eragingo dute hautu horretan. Hautu kolektiboaren ideia ere badago.

² Euskaldun euskaltzalea: “ahal duen guztietan euskaraz harduteko hautua egiten duena: bere etxean, lagunartean, hedabideak hautatzerakoan, ezezagunei lehen hitza egiterakoan, e.a.” Hartsuaga, J.I.: Euskararen egoerari irizten. Hiria

³ Lorea Agirrerren hitzetan: “Uste dut hizkuntza zahar baina berri honek eskaintzen duen gauza onenetako bat eremu berrietan sartzea, esperimentatzea eta mundu berri bat hizkuntza horretan eraikitzeko ematen duen aukera dela”. Edo Anjel Lertxundirenetan: “Euskarak eskaintzen dizkidan munduak eta aukerak ez dizkit gaztelerak eskaintzen: egiteko dagoen guzti hori”

- ❑ Klabea dago ez galdetzen “zer nahi duzu?” errazenera, indartsuenera jotzen dugu. Baizik nola erabakitzen dugu zeren arabera.
- ❑ “Hautu pertsonal kontzientea erantsiko nioke nik”

Norbere nahia. Taldearen nahia

- ❑ Ezintasunak, gogo falta, nahiko nukeena. Uztardura bat eskatzen du.
- ❑ Norberaren nahitik (oreka), hautu batetik, taldearen nahiera (mugatzen)
- ❑ Sarasuarenarekin lotuta dago.
- ❑ Nahia edo hautua ez dago norbere esku, proportzio handi batean norberarengandik kanpo dago: taldean
- ❑ Nahiaren atzean nahi kontzientea eta inkontzientea daude. Taldean pertsona indartsuak tiratzen dute, horrek eramaten zaitu alde batera edo bestera.
- ❑ J. Arexolaleiba: “nahi izatetik ahal izatera”
- ❑ Taldearen nahia beti izaten da indartsuagoa
- ❑ Taldean eragiteko behar dugu diskurtso berria.

2.3.- Eraginkortasuna, balio erantsia. Gogobetetzea, satisfakzioa

Lan mundurako irekitzen dituen atak (Gizarte adostasuna, Gizarte-eskakizuna, Gizarte-sari sistema)

Gaur egun, Euskal Herriko bi hizkuntza ofizialak jakiteak “plus” bat eransten dio edozein herritarri. Lan-munduan areagotzen ari da euskararen ezagutzari ematen zaion balioa. Enpresa askotan euskara-planak abian daude eta askotan euskara jakitea beharrezkoa da (irakaskuntza, administrazioa...). Euskararen eskakizuna gizartean errotzen doa. Gure gizarteko sari sisteman euskara jakitea indartzen doa.

Iruzkina:

Lan mundurako irekitzen dituen atak (Gizarte adostasuna, eskakizuna, Gizarte-sari sistema)

Sektore publikoa: bai (orokorrean)

Sektore pribatua:

- publikoari begira daudenak zonaldearen arabera (aukera da),
- besteak?

Gero eta enpresa gehiagotan hartzen da kontuan. Multinazionaletan gertatzen da, aholkularitzetan. Gizarte mailan badaude indikatzaile batzuk: GFA. Oso sakonean sustraitutako mezua da, izan da. Gurasoek pentsatzen dute “badaezpada jakin dezala, etorkizunean lanerako beharko du”

Gizarte-sariaren ideiarekin lotzen da baita ere.

Eraldatzea eta identitatea

- ❑ Hausnarketa indibiduala, taldekoa, konpartituta eraldaketarako tresna.

- ❑ Besteen esperientziak, errealitateak ezagutu.
- ❑ Hausnarketa konpartitu
- ❑ Kontzientzia garatu, pertzepzioak aldatu, jokaera aldatzen joateko
- ❑ Identitate anitzak, errespetua oinarri. Parekotasuna bi aldetan, norabide biko.
- ❑ Aldatu eta eraldaturen arteko desberdintasuna.

2.4.- Hizkuntza Identitatea Identitate anitzak, kidetza sentimendu askotarikoak Atzerritarrak, etorkinak.

Berezko hizkuntza > Hizkuntza komuna

Azpimarratu izan da identitateak (hizkuntza-identitateak) euskaraz aritzeko hautu pertsonal horrekin duen lotura (zenbaitetan eragile nagusienetako bat dela aipatu izan da

Nola definitu hizkuntza-identitatea? “Pertsona edo giza talde baten identitatearen eta hizkuntza baten artean dagoen lotura. Pertsona edo giza talde bakoitzak hizkuntza jakin batekin (edo gehiagorekin) lotzen du bere identitatea”(Soziolinguistika Hiztegia).

Hainbat adituk hizkuntza identitatea erabileraren gako nagusitako gisa aipatu izan du. Eta hala da asko eta askotan

Baina identitatea eta erabileraren arteko erlazioa norabide bikoitzekoa izan daiteke. Izan ere hiztun askok euskaraz aritzeko hautu pertsonala egiten dute, beraien hizkuntza-identitateak eraginda (jokaera beren jarrerarekin koherente izan dadin). Eta beste batzuk, berriz, hizkuntza batekin identifikatzera ailegatzen dira erabileraren poderioz: hizkuntza horretan diharduten harreman-sare eta jardun-gune ugaritan aritu direlako eta horiekin identifikatzera ailegatu direlako.

Identitateari dagokionez ere garai konplexuetan bizi gara.

Alde batetik, askotarikoak dira, gure artean, identitateak; izan ere jatorri, ibilbide eta bizipen askotariko pertsonak bizi gara elkarrekin egungo euskal jendartean.

Bestalde, gutako bakoitzaren identitatea ere konplexua da (askotarikoa hainbat adituren hitzetan) zenbait elementuk edo ezaugarri osatzen dute identitate hori (etnia, jatorria, erlijioa, kultura, hizkuntza...); era, proportzio eta intentsitate ezberdinetan konbinatuta.

Denok identitate berdintsua izatea litzateke helburua? Hala denok konpartitzea hainbat identitate ezaugarri, bakoitzarenean intentsitate edo lerrun ezberdina hartzen badute ere? Apustua hau izan zitekeen:

- Euskara denon identitatearen osagaia izatea. Denok konpartitzen dugun osagarria
- Norbanako bakoitzaren identitatea toki edo maila ezberdina hartzen badu ere


Iruzkinak:

Hizkuntza Identitatea Hizkuntza + Identitate. Atzerritarrak, etorkinak. Berezko hizkuntza > Hizkuntza komuna

Hautu pertsonala. Erabilera gako pertsonala.



Identitate bat baino gehiago. Konplexua da.



Nolako identitatea bultzatu nahi dugu? Batzuk baztertzailleak dira. Bazara ala ez zara? Irekiagoa izatea lortu beharko.

Zer da identitatea? Talde batean egotearen egoera

“**Basko**” identitatea: errazagoa hurbiltzeko (gauza inportanteak baina euskaraz)

Funtsezkoa da, aldakorra.

Euskal identitatea badago, baina oso anitza da. Mezua izan beharko luke identitate horretan zentralidadea euskarak baduela, eta hortik euskara jakin eta erabiltzearen garrantzia.

Hizkuntza elementu komuna izate aldera, orain arte erabili diren diskurtso edo aurreiritziak birplanteatu (polarizazio batzuk birformulatzea).

Eskola mailan badaude mikro-identitate batzuk hizkuntzarekin lotuta. Gai batzuekin zuzenean eraiki daiteke euskararekin lotura identitarioa. Hau eskolaren abantaila bat da.

Identitate anitzak, kideza sentimendu askotarikoak

Ikasleak hurbildu beste identitateetara, baina euskaldun identitatetik abiatuta.

Lehenengo sortu, landu, euskal identitatea.

Euskaratik abiatuko da euskara duenak. Desideratum bezala.

Identitateak elementu asko ditu eta gizartera begira elementu konpartituak behar ditu. Hauek hizkuntza eta kultura izan daitezke. Guk erronka bezala euskara planteatu genezake.

Zer da euskal identitatea?

Gure esku: gelak identitate duen gela bezala funtzionatzea eta hemen euskara eta kultura sartu.

3. Hizkuntza elkarbizitzaz, Gizarte-kohesioaz eta justiziaz dihardutenak

3.1.- Euskara Hizkuntza komuna (gure artekoa, plazakoa)

Kohesioa eta ekitatea

Hizkuntza eta gizarte-integrazioa. Gizarte-sareetan integratzeko aukerak

XXI mende hasierako garai konplexu eta askotariko honetan, jendarte kohesionatua eraikitzea ezinbestekoa dugu⁴ Aniztasuna aberastasuna da, bai. Baina gizarte bat (eta ez irla isolatuen artxipelagoa) izango bagara zubiak behar ditugu; osagai komunak, kohesio-emaleak; ardatz egituratzaileak. Gizarte bat izateko erreferentzia eta osagai konpartituak behar ditugu. Eta elkarren artean komunikatzeko hizkuntza komuna.

Eta hizkuntza horietako bat izan daiteke; euskara izan daiteke kohesioa eraikitzeko abagunea eta giltzarri⁵.

Hizkuntza “bizitzeko” modu asko egon daitezke; ezberdinak haien artean baina bateragarriak (batera bizi daitezkeenak). Fokatzearekin asmatzea klabe izan daiteke

Guretako askotarako euskara da EHko berezko hizkuntza, “gure-gurea” hizkuntza. Gure lehenengo-hizkuntza (ez agian gure biografian, baina bai gure identitatean)

Hola sentitzen dugu batzuek, baina bizipen horrek balioa al du denontzako? Zenbaitez euskara “hemengo” hizkuntza dela onartuta ere, ez dute bere “identitate-hizkuntza” sentitzen eta zenbaitek ezta “berea” ere

Nork “bere hizkuntza” bat edo bestea dela sentituta ere, denok bat etor gintezke asmo honetan: Euskara izan dadin euskal gizartearen hizkuntza komuna, denon artekoa. Esparru publikoan denon artean erabil dezakeguna, nork bere bizitza pribatuan eta harreman-sare gertuenetan “berea” erabiltzearen alde egiten badu ere.

Euskara denon hizkuntza eta denon arteko hizkuntza komuna izatearen asmo hori gauzagarria da belaunaldi berrientzat, gehien-gehienek izango baitute gutxieneko gaitasun maila (ulertu behintzat egingo dute). Eta are gehiago espazio publikoen hizkuntza komuna bihurtzea haiei egingo die mesede, beraien HKG garatzen jarraitzeko abagune (trebaleku) izango baitute

*Egoera berri honetan **ardatz egituratzaileak** behar ditugu eta hizkuntza horietako bat izan daiteke: ez du zertan denek beti erabiltzen dute hizkuntza izan, baina bai denek ezagutzen dutena eta plaza publikoko hizkuntza, hizkuntza komuna. **Vicenç Villatoro***

Iruzkinak

Euskara H komuna (plazakoa, gure artekoa)

⁴ Kohesio eza izan daiteke XXI gizarte askotarikoaren arazo nagusia, Fragmentazio (bakantasuna eta isolamendua) arriskua bada, ardatz egituratzaileak behar dira

⁵ Hizkuntza (eta kultura) izan daitezke osagai “konpartigarrienak” (beste zenbait osagai baino “konpartigarriagoa” izan daiteke). Beste zenbait identitate-osagai ez bezala, hizkuntza edo kultura berri bat ikasi eta zeureganatu dezakezu, eta ez du eskatzen ordura arte zenituenak bazter uztea edo uko egitea. Hizkuntza eta kultura gehitu/pilatu daitezke; jatorria, etnia, erlijioa... berriz ez

- ❑ Hizkuntza aniztasuna dago Euskal Herrian (hamaika kolore). Hizkuntza bakoitzak bere tokia eta hiztun-elkarteak ditu. Eskolari esker baita ere, hiztun elkarte anitz horien guztien hizkuntza komuna euskara bilaka daiteke. Bakoitzak bere, euskara komuna.
- ❑ Gizarte kohesioarekin oso lotuta dago. Euskara izan daiteke kohesiorako hizkuntza komuna.
- ❑ Erronka bat izango litzateke, bilatu egin beharko dugu. Herenak hitza egiten badu, arrazoia da gehiengoak gaitasuna duela (ulermen-maila behintzat)

Kohesioa eta ekitatea

Identitate anitzak errespetatzeagatik dator kohesioa. Hortik dator gizarte anitza eta kohesionatua. Beti pentsatu hitza minorizatua dela euskara. Hizkuntzarekin lotuta beste modu batzuk bilatu behar dira talde kohesioa lantzeko. Bi hizkuntzak mundu guztiak ezagutu arte, tarteko bideak bilatu kohesioa izateko (musika + kontzertu batean + ...).

Gizarte batek kohesio elementuak behar ditu. Euskara izan daiteke elementu konpartitu bezala, helburu sozial bezala desiragarria.

Ekitatea, bi hizkuntzak ez baditu menperatzen desabantailan egongo da.

Toki euskaldunean ona izan daiteke, baina gune erdaldunetan ez da horrela. Gune erdaldunetan eskola da euskararen berme-emaila bakarra.

Bipolaritatearekin jokatzeko ez da oso zuzena. Gune, herri guztietan daude gehiago edo gutxiago erdaldunak eta euskaldunak

Hizkuntza eta gizarte-integrazioa. Gizarte-sareetan integratzeko aukerak

- ❑ Integratzeko gizarte sareak erabiltzea. Helburu nagusia gizarte-sarea bera da eta hizkuntza, horretarako erabili behar da
 - Whatsapp/line
 - Facebook/twiter/tuenti...
 - Musika/aisialdia/kirola (futbola, saski baloia)/telebista (perdidos, ...)
 - Gazte-lokalak
- ❑ Euskara ondo jakitea eta erabiltzeko ohitura izatea gizarte-integrazio osorako beharrezkoa izan daiteke, belaunaldi berrientzat bereziki; egungo eta etorkizuneko gizarte-sare guztietan parte hartu ahal izateko giltza

3.2.- Egungo egoera askotarikoa eta Denon sentipen eta bizipenak jasoko dituzten formulazioak hobetsi:

Hizkuntzari buruzko fokatzeko bateragarriak eraikitzeak komenigarria izan daiteke: begirada aldatzea, azentua ohiko tokietan jarri beharrean, beste zenbait tokitan jartzea. Euskararen defentsan baliatu dugun diskurtsoak jatorrizko euskaldunen ikuspegiari eta bizipenei erantzuten die, batik bat. Hona hemen hainbat proposamen:

❑ Hizkuntzatik Hiztunera:

“Hizkuntzaren alde” aritzea lehenetsi beharrean, hiztunon behar eta espektatibei (ere) erreparatzea. Eta hiztunok hizkuntza-elkarbizitza egokirako ditugun beharrei

❑ Hizkuntza berreskuratu vs Hizkuntza irabazi?

Nola definituko dugu gure lanaren xedea? Zein parametrok du balio zabalagoa eta orohartzaileragoa: hizkuntza berreskuratzearena ala hizkuntza-irabaztearena. Lehenengoak, batik bat, jatorrizko hiztunen bizipenei erantzuten die (edo euskal identitatea oso sendoa

dutenenei). Euskara bereganatu dutenen esperientzia (baita hiztun berriena edo euskal hiztun izateko bidean daudenena ere), berriz, hizkuntza irabaztearena izan da.

Hauek irabazi egin dute: adierazteko modu berria, harreman eta gune berrietarako sarbidea, gizarteratzeko eta lan munduan sartzeko aukerak

Baina, hiztun berriek ez ezik, hiztun-elkarteak ere irabazi egin du horrekin: hiztun berriak irabazi ditu, komunitatearen etorkizuna ziurtatzen dutenak, eta hizkuntzari bestelako azentu eta ñabardurak ekarri dizkietenak

- ❑ **Hizkuntza-aldatu vs hizkuntza-gehitzea (eranstea, gaineratzea...) eta hizkuntza-aniztasun pertsonala kudeatzen jakitea (ikastea), egoera sozialaren arabera (hizkuntza komuna espazio publikoetan baliatuz)**

Zein da gure proposamena? Erdaldunek hizkuntza alda dezaten eta beren jatorrizko hizkuntzari uko egin diezaioten (bere izaera alda dezaten, haien borondatea ez bada ere) ala hizkuntza berri bat (denona izango dena) haien erreperitorioan gehitu dezaten? Hizkuntza berria bereganatzea eta hizkuntza-aniztasun (aberastasun) pertsonala –ohiko gizarte-egoera eta –sareetan-- kudeatzen jakitea xede erakargarria da edozeinentzat

- ❑ **Hizkuntza-integrazioa vs Hizkuntza bereganatzea**

Nola aurkeztu prozesu hori *“integrazio-prozesu”* gisa, non hiztun berria objektu bezala irudikatzen den ala *“bereganatze-prozesu”* gisa non hiztun berria subjektu aktiboa den eta bere egiten duen harrera gizartea eta honen hizkuntza? (eta haiekiko harreman afektibo iraunkorra ezartzen duen)

- ❑ **Hizkuntzaren biziraupena vs Hizkuntzaren ongizatea**

Hizkuntzaren biziraupenaz hitz egin dugu askotan. Hori al da gure xedea ala hizkuntzarentzako estatus eta erabilera maila ona lortzea? Eta hiztunontzako egoera “erosoa” (natural-normal-...

Hala bada zein metafora da egokiagoa: biziraupenarena ala hizkuntzaren ongizatearena. Zeinek du baterabiltzeko indar gehien? Zeinekin egingo dute bat errazago euskara jatorrizko hizkuntza ez dutenek?

- ❑ **Sakrifizioa edo nekea vs ahalegin sariduna**

Biziraupena, berreskuratzea, lehengoratzea erresistentzia garaian sortutako kontzeptuak dira, legimititatea eman eta atxikipena eta kontsentsua ekartzen zutenak. Eta sakrifizio zein nekearen ideiarekin oso lotuta daudenak.

Gaur egun hitz egiterakoan, eta, bereziki, gazte belaunaldien zein hiztun berrien irudikapenekin eta bizipenekin bat al datoz?, .Proposatzen zaien ahalegina irudikatzeo egokienak al dira? Ez al zaie hobe egokituko saridun ahaleginaren ideia? Hiztun berriari –edo gazteari-- aukera eta gune berriak irekiko dien ahaleginarena alegia

- ❑ **Ondorengoratzetik haratago. Transmisioa vs “hizkuntza-sozializazioa”**

“Belaunaldien arteko transmisioa hizkuntzaren etorkizunaren gakoa da, baina ez bakarra. Bada beste gako bat: hiztun berriak hiztun-elkartera erakartzeko ahalmena”. (Josep-Anton Fernandez. Udaltop 2011)

- ❑ **Transmisio vs “hizkuntza sozializazioa”**

Gainera, egun, hizkuntza transmisioaren norabidea ez da ohikoa eta bakarra (gurasoengandik seme-alabengana). Seme alabak eskolan euskaldundu eta horiekin jardun ahal izateko euskaldundu diren (edo haien euskara hobetu edo hiztun aktibo bihurtu diren) gurasoak (eta aitona-amonak) ez dira gutxi.

Paula Kasaresek ezohiko ikuspegi teorikoa proposatzen digu: hizkuntzaren-sozializazioarena (orain arteko transmisio eredua –hots, familia bidezkoa–, gainditzen duena). Kasaresek esango duenez,⁶ *“hizkuntza-sozializazioa prozesu holistikoa da, familiara mugatzen ez dena; dinamikoa eta baldintza soziohistorikoei lotua, ez mekanikoa; elkarreragilea, ez norabide bakarreakoa; malgua eta denboran aldakorra, ez monolitikoa”*

“Nire ustez, haurren hizkuntza-sozializazioarekiko aitatxi-amatxiek izan duten portaera aldaketa hori, batez ere, haurren eta helduen arteko elkarreraginaren ondorioa da. Izan ere, ez helduek bakarrik, haurrek ere aktiboki jokatzeko dute beren hizkuntza elkarreraginetan. Hala bada, belaunaldien arteko hizkuntza eraginaren norabidea nolabait adierazteko, goitik beheiti ez ezik behetik goiti ere doala ikusi behar dugu. Hainbat belaunalditako subjektuek elkarri eragiten diote, haurrak ez dira helduengandik datozkien hizkuntza eraginen jasotzaile pasibo hutsak. Ez da egokia transferentzia eta transmisioaren kontzeptuek beren baitan dakarten adiera bertikala eta norabide bakarreakoa, goitik beheitikoa”.

“Haurren familia barneko hizkuntza sozializazioaren baldintzen atzean gurasoen mintzaira balioak daude. Baina hizkuntzaren transmisioa ez du gurasoen nahi izate soilak ahalbidetzen. Hizkuntza-sozializazioa gizarte jarduerak bermatzen du, ez gurasoen nahikari hutsak. Beraz, haurrekiko portaera hori hagitz esanguratsua da. Gurasoek beren nahikaria jarduera bilakatu dute, hizkuntzarekiko motibazioa aribide bihurtu”. Eta haurrak ere jardunbidean jarri. Gurasoek haurrak, haurrek gurasoak.

⁶ Aipuen iturria: http://m.argia.com/artikulu.php?id=2353_galdua-zirudiena-nola-berreskuratu-duten-iruritan

4. Hizkuntza komunitatea (Hiztun_Elkartea)

4.1.- Hiztun elkartearen iraupena: Jarraidura-irekiera

... (ikus goian, 2.2.n)

4.2.- Defentsa mekanismoetatik eraikuntza mekanismoetara;

Garai batean, hizkuntza eskubideak aldarrikatzea, defendatzea, zen kontua. Ordea, konturatzen hasi ginen defentsarako, salaketarako, borrokarako diskurtsoa, edukiak eta tresnak genituen bezala, jendearen hizkuntza ohituretan eragiteko garaian hutsuneak zeudela. Zer transmititzen genion guregandik gertu zebilen euskaldunari, euskaraz bizitzeko izugarrizko grina zuenari, eguneroko bizitzarako? Aktibo egon behar ginela bai, baina **aktibo besteekiko, eskatzeko, aldarrikatzeko...** Konturatu ginen defentsa mekanismoak kendu gabe, **eraikuntza mekanismoak martxan jartzeko garaian** geundela. Hizkuntza Eskubideen Eguna egitetik Euskaraz Bizi Eguna pasa gara.

4.3.- Bortizkeria sinbolikoa gainditu behar

... badaude konpondu edo birbideratu beharreko beste alderdi batzuk ere euskararen eremuan . Horietako bat, euskaldunok pairatzen dugun bortizkeria sinbolikoa; alegia, **inkontzienteki barneratu dugun erdal munduarekiko mendekotasuna. Adibideak, nonahi: erdaldun (edo ia-euskaldun) bakar baten aurrean solaskide guztiek erdaraz jardutea; ezezagunei lehen hitza erdaraz egitea; hizpide garrantzitsuenetarako (medikua, lana, dirua...) erdarara pasatzea eta abar.** Mendekotasun horretatik askatzeko eta portaera auto-suntsitzaille horiek iraultzeko zenbait baldintza objektibo zein subjektibo bete behar dira; adibidez: euskaldunen kopurua hedatzea; pairatzen dugun mendeko **egoeraz euskaldunak jabetzea eta euskaraz egiteko konfiantza eta legitimitatea irabaztea.** Kosta hala kosta, lehenbiziko baldintza hori badao pixkanaka betetzen eta, hortaz, besteak ditugu orain lehentasun.⁷ (Iñaki Martínez de Luna)

Iruzkina:

Hiztun komunitatea: partaidetza araurik bai/ez, identitatea... aztertzea eta proposamenak egitea

Araua beharrezkoa da, funtzionamendurako balio du. Hizkuntza bat baino gehiago dagoenean arautu behar da. Ez da beti araua betetzen.

Arautu bai, baina argi izan zergatik eta zertarako, zentzuarekin. Zentzua garbi izan behar dugu, argumentuak argiak eta ezagunak izan behar dute.

Garrantzitsua bi kontugatik:

- o Arauak esplizituak edo inplizituak daude
- o Argumentuak helburuarekin lotuta egongo dira. Adib., ARRUE programa.

Ikastetxe askotan ez dago ezer araututa. Hausnarketa konpartitu baten ondorio izan behar dute.

Hemen ere kontua da irakasleen goiko piramideetara nola iristen garen, bere identitatea irakasle bezala, eta hemen eraginez gero portaeran eragingo dugu eta berez etorriko dira.

Hiru elementu:

⁷ <http://www.argia.com/astekaria/docs/2317/pdf/50.pdf>

- helburua
- gure praktikak orain artekoak esaten diguna
- araudia bai, baina izan daiteke operatiboa, prozedura formatuan edo irizpideak, lan egiteko modu bat. Arauak murriztaileak izan daitezke.

Arauak egon behar dute eta hizkuntzarenak ere bai. Klaustroan landu beharrekoa izango da, eta guk argumentuak beharko ditugu betiko topikoetatik argumentazioak izan behar ditugu.

KOKATZEKE: Ideia horietaz gain, beste ideia batzuk proposatu dira:

- Zigor bikoitza:** Euskara ez egitearren ez zaude gustura. Egiten baduzu zigorra jasotzen duzu. Horrek indefinizio batetara eramaten zaitu.
- Bipolarizazioak eta hipergeneralizazioak gainditu behar.**

Gure lanerako giltzarriak edo indartsuenak direnak identifikatuko ditugu.

Framing berria

Hizkuntza hautu kontzientea

- Jarraidura eta irekidura
- Hizkuntza ekologia eta gizarte erantzukizuna

Euskara hizkuntza komuna. Identitate ezberdinen arteko lokarri.

- Kohesioa eta ekitatea (Hizkuntza komuna)
- Aniztasuna – hizkuntza komuna – kohesioa

Hizkuntzatik hiztunera: maitasuna – bizipenak – eraldatzea – eraginkortasuna – balio erantsia – = SATISFAZIOA

- Hizkuntzatik hiztunera eta hizkuntza komunitatera
- Hizkuntzatik hiztunera
- Begirada aldatu, birkokatu. Hizkuntzatik hiztunera (irakaslearena, gurasoak ere)
- Begirada konpartitu. Zentzua konpartitu ahal izateko lan egin
- Dilts-en piramidea (balioak – identitatea)

Hizkuntzen elkarbizitzaren kudeaketa.

- Zigor bikoitza eta eraikuntza mekanismoak

Lan mundurako aukerak (balio erantsia)

- Hizkuntza ikasleen baliabide eta erronka. Prestakuntza pertsonala. Gizarte integratzaileko giltza. Lan mundurako giltza.
- Gizarte integratzailea, gizarte sareetan eta lan munduan

Hiztunon eskubideak – parekotasuna

- Hizkuntza parekotasuna**

- ❑ Gure lanean erabiltzen ditugun kontzeptu eta paradigmak berri beharra sarritan hizpide izan dugun gaia da. Azken EHB jardunaldietan ere horren beharra azpimarratu izan digute hainbat adituk. Ondorioz, behar bati erantzun nahi dio, diskurtso berria eratzen deitu dugun prozesu honek.
- ❑ Oinarrizko testu bat proposatu da HNT taldearen eta EGBko begiraleen taldeetan eztabaidagai izan dena. Hasierako testuari ekarpenak egitea izan da HNT taldearen eta EGBko begiraleen eginkizuna bi bileretan.
- ❑ Lantzeko proposatutako testuan indarrean ikusten ditugun ideiak eta indartu beharrekoak bi multzotan antolatu dira, nahiz eta egungo ideia asko mantendu beharreko ikusi.
- ❑ Gaia bera mahai gainean jartzea egokia izan da. Ideiak partekatzea, kontzeptuak argitzen saiatzea etab. lehen urrats garrantzitsua izan da.
- ❑ Lanketa prozesua oro har, ondo bideratua izan da. Azpimarratu den ahulgunea: HNT eta EGBkoek batera ez egin izana oinarrizko testuaren azterketa eta lanketa.
- ❑ Agertu diren ideiak, presupuestoak, paradigmak etab. ezagunak dira gehienontzat.
- ❑ Xehetasunak xehetasun, adostasun handia egon da planteatu den ideia bakoitzaren atzean zer dagoen definitzeko garaian.
- ❑ Bereizketa egin da ideien errotzeari dagokionean. Zenbait ideia gairiditutzat jo ditugu gudan. Hala ere, azpimarratu da horietako asko indarrean jarraitzen dutela gizartean, izan ikasleengan, izan gurasoengan etab.
- ❑ Ideien arteko loturak azpimarratu dira. Sare moduko bat osatzen dute ideia askoren artean. Multzoak osatu ziren. Hori garbi agertu zen ideien hierarkizatze ariketan.
- ❑ Ideia batzuen edo besteen eragin ahalmena ezberdina da. Batzuen trakzio indarra handiagoa da, besteena baino. Hau da, indartsu ikusten ditugun ideia horien gizarte-errotzeak indar handiagoz eragingo luke euskararen indarberritze prozesuan.(ikus ideia berrien atala aktan)
- ❑ Indartu beharko genituzkeen ideien, ideia multzoen, inguruan ere adostasun handi samarra adierazi da.
- ❑ Faltan bota dira zenbait ideia. Ekarpenak egin dira (ikus aktak)
- ❑ Orain arte indarrean egon diren ideia gehienak, era batera edo bestera, indar handiagoz edo txikiagoz, denok erabili izan ditugu gure diskurtsoan. Horien erabilpenean, aldeak badaude, txikiak badira ere, HNTen eta EGBkoen artean.
- ❑ Diskurtsoaren izaera dinamikoa azpimarratu dugu. Gizarte baldintzen aldaketek, ekarpen berriek etab. diskurtsoa etengabe eguneratu eta doitu beharra dakar. Halaber, ideia bakoitzaren eta ideien arteko erlazioetan etengabe sakondu eta jantzi beharra. Horretarako, dokumentazio osagarria bildu eta partekatzeko erak antolatu beharra ikusten dugu.
- ❑ Indartu nahi diren ideia horiek gure eguneroko zereginetan, eta batik bat gure mintegietan, ikastetxeetan etab. nola inplementatu langai geratu da.

2013ko maiatza